

GOIERRITARRA



Arg.: Alzuri



AZURMENDI

18 urte kartzelan



ALDANONDO

10 urte kartzelan

**LOINATZ JAIETAN
PRESO ETA IHESLARIAK
FALTA DIUGU!**



AMNISTIA



TXEMI ARTEAGA

3 urte kartzelan



JOSU LOPEZ

2 urte kartzelan

 **orkli, s.coop.**



**Kalefazio eta ur beroarentzat diren erregulazio,
segurtasun eta kontrol osagaiak**

ORKLI Koop. E. - 20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)
Tfnoa.: (943) 88 07 00 Telex: 38415 ORKLI, e - Faxe: (943) 88 73 08

10 URTE GURE BEZEROEKIN

**HAMARGARREN URTEMUGA HONETAN
GURE ESKERRIK BEROENAK GUREGAN
KONFIDANTZA IPINI DUTEN BEZERO GUZTIEI**




SEGUROS LAGUN ARO
ASEGURUAK
Euskadiko Kutxa Taldekoa

GOIERRITARRA

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierritarrak Kultur Elkartea

Dorre-etxea, 1

(Postetxe gainean)

124 posta-kutxa

20240 Ordizia

Tfnoa: 88 96 12

Faxa: 88 27 19

Zuzendaria:

Loinaz Agirre

Maketazioa:

Mikel Albisu

Publizitatea:

Josune Agirre

Erredakzio Batzordea:

Dionisio Amundarain, Jon Arano, Mikel Albisu, Joseba Telleria, Ane Martin, Loinaz Agirre eta Estitxu Imaz.

Zenbaki honetako kronista eta kolaboratzaileak:

Aitor Calvillo, Joseba Telleria, Jon Aizpurua, Rufino Iraola, Edurne Albizu, Izaskun Salazar, Nagore Goiburu, Xabier Gartzia, Juan Joxe Etxeberria, Josune Amundarain, Xabier Urteaga eta Pako Zubeldia.

Fotokonposizio eta maketazioa: GOIERRITARRA.

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9. Oñati)

Tirada: 5.700 ale.

HAMABOSTALDIAN NABARMEN



Aralarren 100 milioi inbertituko dira

Duela urtebete Aralar Parke Naturala izendatu eta gero, joan zen astean onartu zuten Erabilera eta gestiorako plangintza, udal, sindikatu, talde ekologista, ehiztari, Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundiak... osatutako patronatuak. Era berean, aurtengo aurrekontua ere onartu da, guztiara 100 milioi pezeta-koa izango du. Horietatik 72 Diputazioak eta 28 Jaurlaritzak jarriko ditu. Pauso hau oso garrantzitsua da Gipuzkoako lehen parke naturala jartzeko, Iñaki Txueka Gipuzkoako Diputazioko Nekazaritza eta Ingurugiro diputatuaren esanetan.

Dirua basoa hobetzeko eta artzainen txabolak egokitzeke da. Lizarrustin kokatuko da sarrera nagusia

eta kaminero etxe zaharra egokitzeak izango du lehenetasuna. Etxea berritze-ko 70 milioi pezeta erabiliko dira. Etxeak 3 gune izango ditu: zerbitzu eta erakusketak, taberna eta 40 lagunentzat lekua edukiko duen aterbea. Inguruan aparkalekuak egingo dira. Urkillagan ere aparkalekua egitea aurrikusten da. Larraitzerako antolaketa plana bigarren helburutzat du patronatuak. "Presio handia du leku honek, jende asko joaten da bertara. Antolaketa plana egin behar dugu, ibilgailuentzat aparkalekuak prestatu...", azaldu dute patronatukoek.

Aralar Parke Naturalaren 6.300 hektarea publikoak dira (Abaltzisketa, Amezketa, Ataun, Zaldibia eta Enirio-Aralar) eta 4.600 pribatuak.

BOTA BERTSOA



Alaitz Sarasola

Turismoa Goierriin

Doinua: Neska zahar bat tentatzen

Gure bailara modan jarri da benetan nontzeberri ugari dabil bazterretan turismoa bultzatu nahi duten honetan adieraziko dut zer pentsatzen detan.

Horrenbeste turista, begiluze bero ez ote da sortuko hamaika endredo baina emaitza txarrik ez dut nik espero beti ere neurrian sustatu ezkeror.

Eusko Jaularitza-ko Kultura Sailak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA doan

jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

LOINATZ

Taberna Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

Nagusia, 27 ☎ 88 20 07 BEASAIN



KULUSKA
ARANA, 1
TEL. 889388
BEASAIN

LURRAZPIKO

JAIA !!

NAGASAKI

Taberna

"Festa onak pasa"

☎ 88 15 67

J. M. Iturrioz

BEASAIN

SAIOA taberna

Giro on eta jatorra
"Festak ondo pasa"

☎ 88 06 02

Kale Nagusia, 33

BEASAIN

ITZALA

taberna

Zaldizurreta, 3

☎ 88 30 24

BEASAIN

Bai Bai

pub

Jai hauetako alternatiba

Zaldizurreta, 3

BEASAIN

KiTTō

EDARITEGIA

Zorionak
Beasaindarroi

Iturralde, 1

BEASAIN

ETXEBE

taberna

"Festa onak pasa!"

Zaldizurreta Kalea

BEASAIN

BAREA TABERNA

Festa onak pasat

Zaldizurreta Kalea ☎ 16 19 51

BEASAIN

PUB



Zaldizurreta kalea ☎ 88 45 06
BEASAIN



XUBER

PUB

Festa onak igaro!

Zaldizurreta z/g

BEASAIN



Giro jator eta atsegina

BASAKANA

ITURRIOZ 11
BEASAIN

Ñañarri taberna

Kale Nagusia 15 BEASAIN

☎ 88 06 59



BESTE BAR

OGITARTEKO
PINTXO
KAXUELITAK

SINAZIO 1 ☎ 160284 - BEASAIN

**lues
rothers**
BEASAIN

TXANDAKA

Estilo liburuak

LABek azkeneko kongresuan hartu duen erabaki batek piztu dit bonbila: hemendik aurrera Euskadiren partez Euskal Herria esango du. Nik, LABren erditze ingurumari hartan, gure taldetxoan horixe bera eskatu nuen, baina ez zidan inork kasurik egin, izan ere batzuek Euskal Herriari aurkitzen ez zioten kutsu iraultzailea aurkitzen zioten Euskadiri. Euskadiko Ezkerrarekin gauza beretsua gertatu zitzaidan, eta Euskal Ezkerra etorri zenerako, berri, beranduegi zen, eta aspaldidanik utzi nuen LAB. Kontuak kontu, nik nire estilo liburu propioarekin jokatu izan dut beti. Nire idatzi gehienetan Euskal Herria agertuko da, eta Euskal Parlamentua, Euskal Gobernua...

Estilo liburuak, besteak beste, komatxoak (") erabiltzera behartzen zaitu. Adibidez, TVEk, HB aipatu nahirik, "la formación abertzale..." (intenzioz beterik) esaten duenean, aurrena (sic) bat eta gero komatxoak dauzkat ipini beharra; bestela nola bereizi beste abertzaleengandik? Era berean, ezkerrekoak eta abertzaleak ginela uste genuen asko tokirik gabe geratu gera, "Ezker abertzalea", gaur egun, HBren ingurukoari bakarrik deitzen baitaio. Orduan nire komatxoak justifikatu baino justifikatuago daude.

Gauza bera gertatzen zait orain "Udal Euskaldunen Mankomunitate"ekin. Zeren ez zait iruditzen Lazkao, Beasain, Ordizia, Segura, Ataun, Idiazabal, Zegama, Legorreta, Ormaiztegi, Gabiria... udal euskaldunak ez direnik. Horregatik, kontzeptu zehatzagoak asmatu behar dira edo, bestela, nik nire estilo liburuarekin segituko dut.

Rufino Iraola Garmendia



Zaborra berziklatzeko ohiturarik ba al duzu?



Ainhoa eta Nekane

**16 urte, ikasleak
beasaindarrak**

Bai, papera, botilak eta plastikozko ontziak. Papera berziklatuz gero, ez genuke zuhaitzak moztu beharrik izango papera egiteko.

Patxi Telleria

**33 urte, tabernaria
beasaindarra**


Botila, plastikoak eta papera bereizten ditut. Piskanaka jendea gero eta gehiago saiatzen da, baina askotan jendea oso komodoa da.



Ana Beitia

**41 urte, etxekoandrea
ormaitzeginarra**

Saiatzen naiz. Batez ere papera eramaten dut berziklatzera. Nik uste oraindik jende asko falta dela kontzientziatzeko.



✓ Pinturak

○ Dekorazioa

○ Industrialia

✓ Tresnak

✓ Makineria

Tfnoa. eta faxa: 88 65 63
Oriamendi, 32 BEASAIN

IBAI - ONDO



**ZURGINTZA
HALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK**

Tailer eta erakusketa:

Antzizar Auzoa, z/g.

Tfnoa: 880543 BEASAIN



Tfnoa: 885500 ORDIZIA

**JOSUNE
ESTETIKA ZENTRUA**



* Tratamendu bereziak:
aknea, liftinga, estimulazioa
eta makilaje iraunkorra..

* Kontsulta medikua:
gizentasuna, barizeak,
liposukzioa eta zirujia
estetikoa..

Zure ezkontza egunean
dizitatsu egon zaitezen
tratamendu guztiak ditugu.

**J.M. Barandiaran Plaza, 3
88 28 88 ORDIZIA**

ZINEA

GOIENIZ, zine kluba:

'Las aventuras secretas de Tom Thumb'. Maiatzak 23. 21:00etan Usurbe Antzokian.

LEGORRETA:

'Maverik'. Maiatzak 13. Herri Zineman, 20:30ean.

'El piano'. Maiatzak 20. Herri Zineman, 20:30ean.

BEASAIN:

'Sentido y sensibilidad' Larunbata 11: 19:30 - 22:15; igandea 12: 19:30 - 22:15; Astelehena 13: 19:30 - 22:15.

'Adios tiburón' Igandea 12: 17:00.

ORDIZIA:

'Ace Ventura (operacion Africa)' Ostirala 10: 22:15; larunbata 11: 19:30 - 22:15; igandea 12: 16:45 - 19:30 - 22:15; astelehena 13: 19:30.



'Tom Thumben ixileko abenturak'

Dave Borthwick (Bretainia Handia, 1990-95)

Modu bitxian egokitzen du Erpurutxoren ipuina, ametsen munduaren zehar eginiko bidai txundagarri baten bitartez, giza-kiak, panpin animatuak eta zomorro sinesgaitzak elkarrekin bizi diren mundu izugarri bati egiantza emanez.

Sari ugari jaso dituen 10 minutuko laburmetrai batean oinarrituta, dimentsio hirukoitza eta Pixilazioa imajinaz-imajina benetako aktoreak animatzeko teknika-konbinatzen dituen pelikula dugu.

Pixilazio liluragarriak eta aparteko eraginkortasuna duten elkarriketek, sinesgaitzak diruditen imajinaz beteriko fantasiatzko azpimundu kezkarri bat sortuko dute.

Erpurutxoren ibilketak eta biribilketak injinaritza jenetikoaren unibertso arriskutsuan.

DANTZA

BEASAIN:

Maiatzak 10, Metros taldeak 'Duermete ya' dantza ikuskizuna aurkeztuko du, Maiatza Dantzan kanpainaren barruan. Usurbe Antzokian, 22:30ean. Sarrera 600 pezeta.

BERTSOAK

BEASAIN:

Maiatzak 18, X. Jimenez, X. Nazabal eta A. Aldasoro, Arrano elkartearen, 20:30ean.

Maiatzak 21, S. Liza-so, J. Sarasua, A. Egaña eta I. Eguren, Loinazko San Martin plazan, 13:00etan eta 19:30ean.

ITSASONDO

Maiatzak 18, X. Narbarte, H. Zeberio eta N. Elustondo, Arbelaitz elkartearen, 20:30ean.

LEGORRETA

Maiatzak 11, Jon Sarasua, Loidisaletxe, Xabier Euzkitze, Xabier Zeberio, Joxe Agirre eta Millan Telleria. Gai-jartzailea: Txato Agirre. Herri Zineman, 22:30ean.

ANTZERKIA

ORDIZIA:

Maiatzak 11, Teatro Maletak 'Qué puñeta de maleta' kafe-antzerkia, 22:30ean, Barrenan. Sarrera 400 pezeta.

Maiatzak 17, Sacratif jazz-taldearen kafe-antzerkia, 22:30ean, Barrenan. Sarrera 400 pezeta.

MUSIKA

BEASAIN:


Maiatzak 11, Landarbaso abesbatza, Elizan, 20:30ean.

Joakin Aldanondo

BULKANIZATUAK

Gurpil lanak, alineazioak
filtroak, olioak, engraseak
frenu pastila, tubo eskape, bateriak

Errota Poligonoa (IDIAZABALgo sarreran) ☎ 80 02 57



GARBI autoserbitzua

- Garbiketa, argiztaketa eta lehorte katea.
- Pulitu eta briluztatzea.
- Neumatiko eta olio aldaketa.
- Espezialitatea: autoen barru, moketa eta tapizerien garbiketa.
- Motoren garbiketa.

Industrialdea. ☎ 88 27 30 - ORDIZIA

ASEGUROAK

- ✖ Aholkularitza laborala eta fiskala
- ✖ Jubilazio, bizitza, etxebizitza eta kotxe aseguruak

☎ 88 44 00 - 88 12 58

Goierrri, 12

ORDIZIA

Mobil

Lubricantes

Maiatzak 17, Loinatz, Loinatz Gazteak eta Loinatz-txiki abesbatze kontzertua, Parrokian, 20:30ean.

HITZALDIAK

BEASAIN:

Maiatzak 10, Nazioarteko kooperazioari buruzko hitzaldia, Gurutze Gorriko Gazteek antolatuta.

ERAKUSKETAK

BEASAIN:

Maiatzaren 12ra bitartean, Loinatz abesbatza-ren X. urteurrena ospatzeko erakusketa, Usurbe Antzokiko erakusketa-aretoan.

Maiatzaren 24ra arte, Gema Conderen erakusketa, Aterpe tabernan.



ORDIZIA:


Maiatzaren 17ra arte, Charles P. Jamieson Estatu Batuetako argazkilaria-

IKUSTENTZUNEZKOAK

ren lanak, Barrenan.

BEASAIN:

Maiatzak 10, Marro-nen 'Alaska' diapositiba bildumaren proiektzioa Aizkorri



GOARDIAKO FARMAZIAK

Maiatzak 10: Arriola

11-12-13: Urbizu

14: Atorrasagasti

15: Azpilikueta

16: Jauregi

17: Laurnaga

18-19: Atorrasagasti

20: Cuesta

21: Arriola

22: Urbizu

23: Atorrasagasti

IKASTAROAK

Mendizale elkartean, 20:00etan.

ORDIZIA:

Maiatzaren 11, 18, 25 eta ekainaren 1erako,

MENDI IRTEERAK

Sukaldaritza ikastaroa antolatu du Hitzarok.

Beasaingo mendizaleak:

Maiatzak 21, Ordizia-ko haurren martxa neurtura

Ordiziako mendizaleak:

Maiatzak 12, Lekunbe-ri-San Migel.

DEBALDEKO IRAGARKIAK

Salerosketak:

Renault 18, diesela salgai. Zerrail zentralizatua, eleba-luna elektrikoak, direkzio la-gundua eta extrak. 80 19 93.

Kanping karroa salgai. Arantxa. 18 04 06.

Etxebizitzak:

Pisua salgai Ordizian. Kasko historikoan dago kokatuta, Kale Nagusira eta Goen ka-lera ematen du. Erreforma-tuta. 88 06 34

Ormaiztegin pisua salgai. Handia, berritua eta dena kanpoaldera. 72 27 94.

Bestelakoak:

Martxoaren 8an eraztima gañdi eta oraindik arrastorik gabe bazaude, deitu 16 02 82 telefonora.

Haur - eskola

SEASKA

Igartza Oleta z/g

☎ 88 39 26 / Faxes: 88 94 11

BEASAIN



- ◆ 0-3 zikloa bere osotasunean eskeintzen duen zentro bakarra.
- ◆ 1a 20 urteko esperientzia.
- ◆ Giro euskalduna (D eredua).
- ◆ Bertako sukaldean prestatutako janariak.

◆ 3 urtetik aurrerakoentzat zerbitzu irekia: goiz, eguerdi eta arratsaldeko zerbitzuak; eta eskola-ikastolako oporraldietan aktibitate eta irteera bereziak (udalekuak).

◆ Matrikula epea irekita dago.

OLAGI

sagardotegia

Sagardotegiko afariak
Enkarguz bazkariak
eta ospakizunak

☎ 88 77 26

ALTZAGA



IKASTEK AKADEMIA

- Maila eta arlo guztiak
- Laguntza pertsonalizatua
- Kalitatea eta esperientzia

☎ 16 01 20

Joan Iturralde, 5

BEASAIN



Xabier Gartzia
Irakasle eta idazle
beasaindarra

***“Pello bezalako
kontalari finei
kantu-kantari
eta kontu-
kontari segitzea
eskertu behar
diegu, ipuinak
baitira umeen
bihotzetako
azukre-
koxkorra”.***

Lehengo batean, dozena bat haur inguru bilduta zeuden Beasaingo Ezkiaga auzoko bibliotekan, ipuin kontalari baten kontuak eta kantuak entzuteko pronto. Horretan, Pello Añorgak agertu eta aurkezpena egin ondoren, narruzko zaku handitik danbor bat atera zuen, indiar danborren antza zuena, eta hura eskuez jotzen hastearekin batera kantuari eman zion: “Ipuinak, kontuak, kontu ditzagun...” Begiak hontzarenak baino handiagoak jarritz begiratzen zioten neska-mutilek Pellori eta, akordatzera, bat eginda zeuden kantuan, horrela ‘Txomin ipurdi’ ipuinari hasiera eman zioten.

Jose Arratibelek Ataunen jaso zuen Txomin ipurdi ipuinari egokitze-lan bikaina egin dio Pellok, 5-6 urteko haurrak aintzakotzat harturik. Txomin ipurdiren ibilerak eta pasadizoak azalduta gero, Pellok narruzko zaku majikoan eskua sartu eta handik ‘Oh!’ deituriko ipuin liluragarria zeukan liburua atera zuen. Itxuraz liburu mutua zen, marrazkiak besterik ez baitzeukan, baina, Pellok liburuaren laminak aurrerantz eta atzerantz pasatuz hizka-mizka ari zen bitartean, hizketan jarri zuen liburua, haurrek, begiak platerak bezain zabal, begirik kentzen ez ziotela. Ikustekoak ziren haurren aurpegiak, ipuinaren zenbait pasartetan kontalariarekin batera, “Oh, oh, oh...!” errepikatzen zutenean. Hura amaitzean, kandelak eta soka atera zituen zaku majikotik, eta elementu horietaz baliaturik beste ipuin kontaketa ekin zion. Azkeneko ipuina bi hegazti-lumek kontatu ziguten, eta hura ipuinaren, eta saioaren buketik bikaina: bi lumek airean gora joanda agur esaten zigitela, ipuinean azaltzen zen


Kantu kanta kontu konta, kontalari hori!

mutikoak inbidiatan erregutu zien lumek: nik ere zuekin joan nahi dut. Orduantxe lumek mutikoari: ez, zuk ez duzu gurekin etorri beharrik. Zuk ipuinak irakurrita egin deza kezku hegan. Irakurri ipuinak eta nahi duzun leku guztietara egingo duzu hegan.

Haur horiek dozenan hamahiru izaten ez diren horietakoak zirela pentsatzen nuen nik, hain ikusi baintuen sor eta lor ipuinak entzunez. Ez motel —esan zidan Pellok—, hau ez duk harritzekoa! Makina bat haur-talde ikusita omen dago Ezkiaga auzokoak baino belarriak eta begiak erneago zeuzkatenak ipuinek iraun bitartean. Bere aburuz, Ezkiaga auzoko neska-mutil haien euskara-maila erdipurdikoa zen, saioaren antolakuntza txit badaezpadakoa (Pello ipuin-kontari ari zela, zenbait haur sartu-irtenean baitzebilan gelan) eta, hori eta horrenbestez, ezin haurrek ipuinen mami goxoa erabat gozatu eta ezin Pellok haurrak nahi hainbat harrituarazi. Nolanahi dela ere, Pelloren iritzia iritzi, ziur nago ni irakasle batek baino gehiagok gustora edukiko lituzketela haurrak hain adi ikasgeletan. Baina haurrak ezezik, ni ere harri eta zur utzi ninduen ipuinak kontatzeko zeukan trebetasunak, eta agindu nion, hurrena eman behar zuen ipuin-kontaketa saiora, Ordizikora, bisitan joango nintzaiola. Ez zitzaidan damutu. Enegarrenez joanda ere ikasiko nioke zertxobait, bai baitauka zer irakatsia ikasi nahi duen ororentzat.

Nire ustez ipuin-kontalariak, bere lana taxuz eginez gero ondo gogoan hartu beharko ditu ondorengo alderdiak: lehenbizi, ahotsa. Horren garrantziaz jabetzeko Orson Welles-ek aktoreak aukeratzeko erabili ohi zuen metodoa azalduko dizuet. Begiak itxita zituela errebitzen zituen Orsonek aktoregaiak, eta hizketan egiteko agintzen zien. Ez zien, lehenengo aurkezpenean, aurpegira begiratu nahi izaten, irudi fisikoari ez baizik ahotsari ematen baitzion garrantzirik handiena artistak aukeratzeko. Baina, ahotsaren kalitateaz gain, horren zenbait ezaugarri ere erreparatu behar zaio: orain tonu ozena erabili, orain ixilka-mixilka aritu, orain garrasika, orain totelka, orain ixiluneak gorde, orain bizi-bizi, orain mantso-mantso... Bigarren alderdia, hizkuntza bera da. Darabilen hizkuntza errotik ezagutzea eskatuko nioke nik kontalari bati. Hizkuntza samurra izan behar du beti, entzun ahala ulertu egin behar baita. Kontaera gozatuko badu, kontalariak, besteak beste, umeekin batera zenbait hitz edo esaldi errepikatu, hainbat onomatopeia erabili, esaera zahar eta berriak ipuinera bildu, eta errimak han eta errimak hemen txertatuko ditu. Hirugarrenik, zeinuak eta keinuak erabiltzea. Kontalariak, ipuin-kontari ari dela, gorputza beti zurrin eduki barik, behin baino gehiagotan airoso mugitu beharko ditu gorputz-atalak. Beti ere, kontatzen dena nolakoa, keinua halakoa. Pello bezalako kontalari finei kantu-kantari eta kontu-kontari segitzea eskertu behar diegu, ipuinak baitira umeen bihotzetako azukre-koxkorra.

ERREZETA



Iñaki Ibañez
Julki gozotegia
Beasain

BEASAINGO MARTINTXOAK

(Julkiko espezialitatea)

Brisa pastazko tarteleta du oinarrian. Azukre, ezti, gurin, irin eta arrautzez egiten da brisa pasta.

Gaztaina kremarekin betetzen da. Hau egiteko, gaztainak, azukrea, esnea, whiskya, arrautzak eta guri-na behar dira.

Eta azkenik, txapela, txokolatezko makarroia, jartzen zaio. Honek, almendrak, aukrea eta txokolatea ditu osagai.



Juan Joxe Etxeberria
Foru Ogasuneko
Teknikaria

Nork egin behar du aitorpena? Galdera hau argitzeko beste honi erantzun behar diogu: Nork ez du egin beharrik? 1995ean 1.100.000 pezeta baino gutxiago irabazi dutenek. Baino irabazi horiek ondorengo bi iturri hauetatik soilik lortu badira:

- Lan-etekinetatik (soldat, pentsioak, langabezia prestazioak...)

- Kapitalen irabaziak (kontu-korronteen interesak, eperako inposaketen errentak...) eta ondare gehikuntzak (Inbertsio Fondoetan lortutako irabaziak, edozein ondasunen salmentan izandako plusbaliak...), baina bigarren kontzeptu honek ezingo du 250.000 pezetako kopurua gainditu, nahiz eta 1.100.000 pezeta baino gutxiagoko

AHOLKUAK

Errenta aitorpena

errenta izan. Pentsionisten kasuan, 1.100.000 pezetako muga hori 1.200.000-ra igo-tzen da.

Dena den, esan behar da, errenta aitorpena aurkeztea behartuta ez egon arren, askotan egitea komeni dela, aurretik egin dizkieten atxikipe-nak (retenzioak) direla eta aitorpenaren emaitza dirua jasotzea izan daitekeelako. Horregatik, kontuak egitea gomendatzen da, aitorpena aurkeztea komeni den edo ez ikusteko.

Jendeak askotan galde-tzen duen beste gauza bat ze-ra da: "Nik aitorpena bakarka ala nere senar/emaztearekin batera egin behar dut?" Hemen ere ezin da kasu guztietarako balio duen erregela ze-hatzik eman. Esan daiteke, generalean, biek lan egiten badute, bakarka egitea kome-ni dela. Alderantziz, batek bakarrik lan egiten duenean, batera aitortu ezkerio emaitza hobea izango dela. Hori gehienetan horrela izaten da, baina ez beti eta horregatik, kasu guztietan kalkuluak egin eta aukerarik onena zein den

ikustea gomendatzen da.

Urte gutxiren barruan etxea erosteko asmoa duen gaztearentzat, etxebizitza-kontu bat irekitzea aukera ona izan daiteke. Urtero etxebizitza-kontuan sartzen den kantitatearen % 15a, errenta aitorpeneko kuotatik (ordain-du beharreko kuotatik) kentzen da. Hau da, etxebizitza kontuan sartutakoaren % 15a "itzultzen" dute. Baina kontutan hartu behar da etxebizitza kontua ireki eta 5 urte baino lehen, kontu horretan pilatu den dirutza norberaren etxea izango dena erosten erabili beharko dela. Hau da, etxebizitza-kontuan sartzen den dirua ezingo da gehiago ikutu. Kontu horien erabilpen desagoki bat egiten bada, lehen deduzitutako kantitateak itzuli beharko dira dagozkien interesekin. Etxebizitza-konturen bat irekitzeko asmoa edukiz gero, urte bukaeran irikitzea komeni da, 5 urteko epea beranduago kontatzen hasteko eta urtean norberaren errentaren % 30a baino gehiago sartzea ez da interesatzen.

KENTER

Enmarkaketak Opari artikuluak
Eskulanak Erakusketak

Zazpi Iturrieta, 1 behea
BEASAIN

☎ 88 53 61



AZURMENDI

Harategi - Urdaitegia

San Inazio, 6 ☎ 161674 - 161328 BEASAIN

Victor Mendizabal, 2 ☎ 88 47 65 ORDIZIA

OIARBIDE

OINETAKOAK

Laskurain, 12
☎ 65 37 86
TOLOSA

San Inazio, 14
☎ 16 04 34
BEASAIN

MARI JOSE

MERTZERIA

Kinkila-denda

☎ 887267

S. Inazio, 14 (Galeriak) BEASAIN

Itsasondoko gertaerak

Eusko Jaurlaritzak ezin izango du, Itsasondon ustez bi ertzain hil zituen Mikel Otegiren aurkako epaiketan akusazio popular bezala azaldu, Donostiako Entzutegiaren epaiaren arabera. Era berean, Mikel Otegi gaztearen aurkako epaiketa uda aurretik egingo da eta Gipuzkoan Juratu Legearekin epaituko den lehen kasua izatea espero da.

Gipuzkoa Buru Batzarra

EAJren Gipuzkoa Buru Batzar berrian 4 goierritar daude: Arantxa Gibelalde, Josetxo Arrese, Patxi Ezkiaga eta Markel Olano.

Guardia Zibila

Amnistiaren Aldeko Batzordeek jakitera eman dutenez, Goierriko errepide eta herrietan Guardia Zibilaren presentzia areagotu egin da. Trenak ere kontrolatzen ari direla jakinarazi dute. Irun-Miranda ibilbidean, guardia zibil uniformatu eta armatuak bidaiatzen ari dira eta pertsonen irteerak eta sarrerak kontrolatzen, beti ere AABen esanetan. "Beldurra ari dira sortzen



Josetxo Sastre intsumisoaren atxiloteta

Apirilaren 27an atxilotu zuen Ertzaintzak, Beasainen, Josetxo Sastre. Intsumisoa aurkitu eta atxilotzeko agindua zegoen. Larunbatean, iluntzeko 7etan, Beasaingo tren geltokiaren ondoan dagoen Gurutze Gorriaren egoitza berde kakiz margotu zuen. Berehala Ertzaintza etorri, identifikatzeko eskatu eta atxilotu egin zuen. Hau guztia gertatzen ari zen bitartean, Sastrek 200 bat lagunengana babesa izan zuen. Txaloen artean eraman zuten Sastre Ertzaintzaren autoan. Larunbata gauean bertan aske utzi zuten Sastre.

"Gurutze Gorriak Objeto-intsumisoen epaiketa eta gartzelaratzearekin kolaboratzen du, Gurutze Gorria 200 kontzientzia presotik gora egotearen erantzule da, eta epaitu zain dauden beste milakaren berrero", dio Goierriko Objeto taldeak zabalduetako oharra. "Alperrik dabilta margo gorri eta zurien atzean ezkutatu nahian, dagokien benetako kolorea berdea denean, Kaki kolorea. Horregatik eta bilatze-atxilotze agindua daukan Josetxo Sastre intsumisoarekiko elkertasun seinalean, Goierriko Intsumisoen kooperatibako enpresa den Cruz Kaki Mar-goak subkontrata Gurutze Gorriaren egoitza margotu" zuen GOTen esanetan.

herriarren eta eragozten ari dira lasaitasunez bidaiatzea", AABren ustez.

Beasaingo Senideak

Arazo familiarrak direla medio Ceutatik Langraitzeria ekarri zuten Jokin Aldaondo preso. Senideak elkarrekin zera eskatzen dio Beasaingo Udal Batzarrari: "Jokin 'etxean' dugunez bertan bete dezala geratzen zaion zigor denbora. Zuek herritar 'guztien' ordezkari publikoak zaretenok jakin eta ikusi beharko duzue ze gestio motabultzatu hori lortzeko".

UEMA eguna

Gaintza, Zaldibia, Altzaga eta Itsasondok Udalerri Euskaldunen egunean parte hartu zuten joan zen igandean, beste 23 herrirekin batera. Aramaion ospatu zuten eguna eta Zaldibia eta Legorretako Herri Eskolen protestak bere tartea izan zuen. Udalerri Euskaldunak elkartzea Euskal Herriaren euskalduntze prozesurako bultzada garrantzitsua izango da UEMAren ustez. Mankomunitatean sartuta dauden herriarrek elkartzeko festa izan zen Aramaiokoa.



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20

Tfona: 88 87 02

BEASAIN



MUJIK
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19. Tel. 88 11 94
ORDIZIA

VOLVO
TOYOTA



ŠKODA
Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumaraga, 46 Kma.
☎ 88 17 00 - 88 17 04
BEASAIN

CAF

Canadako Bombardier enpresarekin batera, CAFek 13 tren egingo ditu Mexiko hiriburuko metrorako. Beasaingo tren enpresak diseinua egingo du eta gainontzekoa kanadiarrek egingo dute. Era berean, Sao Paulo metrorako ere beste 4 tren egingo ditu CAFek.

826 gramo haxix

Guardia Zibilak 826 gramo haxix zeramatzen 32 urteko C.C.C.A. beasaindarra atxilotu zuen apirilaren 20an Ordizian. Atxilotuta unean speed dosi bat ere atzeman zien, guztia 830.000 pezetan baloratua.

Tuberkulosia


Gipuzkoa mailan, Goierri eta Deba Beheran azaldu ziren iazko urtean, tuberkulosi kasu gehien.

Osinalde sariketa

Giro bikainean ospatu zen apirilaren 27an XXV. Osinalde sariketa. Berezia izan zen, 25 urte hauetako txapeldunak elkartu, afaldu eta bertso-saio polit eta berezia egin zuten.

ONCE antzerki sariketa

ONCEk Estatu mailan antolatutako antzerki lehiaketan Ordiziako hiru ikastetxe saritu dituzte. Urdaneta 11-12 urte bitartekoetan; Milagrosa 8-10 urte bitartekoetan eta Oianguren Institutua 15-18 urte bitartekoetan. Pertsona elbarriak gizartearen integratzeko proposamena edo bidea eskaintzea du helburu lehiaketa honek. Estatu osoko 3.000 ikastetxek hartu dute parte.



Liburuak

Tere Irastorza zaldibiarrek bere aurreko 5 liburuetakoa poemak bildu ditu 'Gabeziaren khantoreak' liburuan. Pamiela argitaletxearen eskutik kaleratu du.

Patxi Zubizarreta ordiziarrak, era berean, Alber-



Ordiziako Opel Irurok - Marotias txirrindulari taldeak, juvenil mailako taldekako erloju aurkakoa berriz ere Gipuzkoako txapelketa irabazi du. Maiatzaren 1ean, Ordizian bertan jokatu zen txapelketa. 25 taldek parte hartu zuten, 52 km.ko ibilbidea egin behar izan zuten.

dania argiteletxearekin, 'Enara, zer berri?' ipuina kaleratu du. Haur baten istoria agertzen da enara bategen kontatua. Udazkenean idatzitakoa da.

Duatloi txapelduna

Luis Miguel Garijo beasaindarra dugu Gipuzkoako duatloi Kopako txapeldun berria. Apirilaren 20an jokatu zen Beasainen bertan txapelketa eta guztira 146 kirolarik hartu zuten parte. Korrikan 11,2 km. eta bizikletaz 37 km. burutu behar izan zituzten.

Amaia Andres

Korrikalari beasaindarrak agur esan dio atletismoari. 29 urte ditu Amaia Andresek, eta "nekatuta" dagokiolako utzi omen du. Ordiziako taldean hasi zituen Amaiak lehen urratsak Jose Manuel Caballero eta Jose-txo Imazekin. 70eko hamarkadan Gipuzkoako eskolarteko kirolari onena izan zen. Harrez gero marka ugari egin ditu: 1.000 metrotan, Estatuko markarik onena du. Bartzelonako Olinpiadetan parte hartu zuen beasaindarrak.

KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordura eskatzeko Tfnoak: 885750 - 885754
Nafarroa Etorbidea, 25 - 2. BEASAIN

EROSKI KAFETEGIA

gosari - merienda
eguneroko menua

☎ 88 27 93

ORDIZIA

OSASUN

BELAR ETA DIETETIKA DENDA
NATUROPATA

Eska ezazu eguna eta ordua

Goierri, 10 • Tfnoa: 88 61 14 • ORDIZIA

IPARRAGIRRE ANAIAK, C.B.

KARROZATEGIA


Hiribarren, 24
Tfno: 88 95 83

20210 LAZKAO
(Gipuzkoa)

'ORDIZIA MERKATARITZA INTEGRALA' PROIEKTUA AURRERA DOA: Dendari txiki eta handiak elkartuta, Goierriko merkatal gunea Ordizian

Ordizia merkataritza integrala' proiektua aurrera doa. Trenbi-deaz bestalde, San Bartolome ermittaren inguruan, beti ere Ordizia Goierriko, (eta ahal izanez gero Gipuzkoakoa), gune komertziala izan dadin. Juanbi Erauskin Ordiziako alkatearentzat proiektu handizale edo an-biziotsua da, eta ilusio handia behar da. Apustua hor dago. Jarraian dihoazkizue proiektuaren nondik norakoak.

'Ordizia merkataritza integrala' proiektuak bi kontzeptu biltzen ditu. Batetik, Ordiziaren merkataritza ideia saldu nahi da; eta bestetik, bai dendari txikiek, bai handi batek (Eroskik) bertan parte hartuko du. "Ordizia betidanik izan da Goierriko gune komertziala. Baserri-tarrak azokara jaisten zirenez, Ordizian merkataritza nahiko indartsu bat sortu zen. Denboran zehar toki guztietan bezala, bizimodua aldatu delako, superfizie



'Ordizia merkatal herria' proiektua:

Ibaiaz ezkeraldekoea datozen hiru urteetan egingo da:

- 6.000 m² dituen Eroski. 40 lanpostu gehiago sortuko ditu. Bi aparkaleku izango ditu: lur gainekoa eta lur azpikoa.
- Hirigunea lotzeko oinezkoentzat bi pasagune: trenbi-dea eta ibaia zeharkatzeko.
- Labela-ren kalea sortuko da. Labela duten produktu guztiak bilduko dituen kalea.
- Etxebizitzak, lokalak eta hotel txiki bat egingo dira.

Ibaiaz eskubialdekoak luze joko du:

- Enparantza Nagusiaren erreplika egingo da.
- Etxebizitzak egingo dira.
- 200 lanpostu sortzea aurrirakusten da.
- Guztira 400 bat etxebizitza egingo dira.
- Lurak CAF eta Sukia Eraikuntzak enpresenak dira.

handiek igoera izan dute eta komertzio txikia beherakoa doa piskanaka. Orain,

piskanaka, interneta eta telekonpra doaz goraka. Hori dela eta, dendari txiki eta

handien arteko harremanak areagotu beharrean dago egoera berri honi aurre egiteko", adierazi digu Juanbi Erauskin Ordiziako alkateak.

Eroski ez da arerioa

Orain arte Eroski eta merkatu txikia arerio direla uste izan bada ere, ideia hori apurtuz omen doa. Proiektu berriaren arabera, 3 urte joaterako, hiru aldiz handiagoa izango den Eroski eraikiko da. "8 urtetan konturatu gara arerio handiagoa izango litzatekeela Eroski, hemendik 10 kilometrorara egongo balitz. Azken batean, dendari txikiek ikusi dute hemendik Eroskira 2 minutu daudela. Prycaren operazioa ondo ateratzen bada, benetako arerioa hura izango da. Eroskitik herrira jendea ekartzea zaila bada, are zailagoa Prycatik ekartzea", adierazi du. Azken batean, enpresario ezaugarriak dituzten merkataria konturatu omen dira.

OSKARBI
OINETAKOAK



Mota guztietako eta adin guztientzako oinetakoak.

Kickers

K. Nagusia, 25

88 19 44

ORDIZIA



Zeurea delako, zatoz
Euskal Eskola Publikora.

OIANGUREN BATXILERGO
INSTITUTUA - ORDIZIA

88 08 62

- Kalitatezko heziketa, euskalduna eta dohainik.
- BBB eta UBiko ikasketetan esperientzia.
- Heziketa integrala: gaitasun eta baloreen tratamendua geletan aplikatua.
- Eleaniztasuna: Ingelesa ezezik frantsesa edo alemaniera ere ikasteko aukera.
- Aukera zabala ikasgai aldetik.
- Erreformatarako prestatua.

IZEN EMATEKO EPEA: Maiatzaren 2tik 17ra (9.30etatik 14.30etara)
Edozein gauza argitzeko etor zaitez Institutura

eurek saltzen dituzten produktuak eta Eroskin saltzen direnak, segmentu ezberdinetan kokatzen direla, eta ez direla konpetenteak. "Arropa erosterakoan, esaterako, gauza bat da Eroskin dagoena eta bestea kallean dagoena. Agian, janari aldetik izan da lehiarik handiena. Prezioan ezin daiteke konpetitu, baina kalitatea eta zerbitzu ona emanez gero, hor konpetitu daiteke, Eroskik ez du ematen", gaineratu du. Proiektu hau martxan jartzen hasi zirenean Eroski kanpoan uztearen edo beste leku batera eramatearen aldeko azaldu ziren, baina "gero konturatu dira proiektu honen motor bat Eroski dela". Formazioa, sare finantzioarioak, inbertsioa... egitea beharrezkoa izango dute dendari txikiek, aurrera egitekotan.

Eroskira joaten den jendea hirigunera erakartzea lortu behar da Ordiziako Alkatearen ustez. "Trenbidea da orain arte hori ez lortzeko oztupoa. Herria erdi erditik banatzen du eta dauden pasabideak ez dira egokiak. Horretarako, oinezkoentzako bi pasagune egingo dira, trenbidea eta

ibaia zeharkatzeko". Aparentzalekuak gainera, beheko gune berri horretan egingo dira.

Herriarentzat onura

Gauza guztiak izaten du alde ona eta alde txarra. Momentu honetan Juanbi Erauskinek gauza onetan bakarrik pentsatzen du. "Izango ditu akatsak, seguru. Baina azken batean, apustu bat da. Ondo ateratzen bada, denok pozik. Gaizki ateratzen bada, badakit zer gertatuko den. Zenbait jende dirua jarriko du. Azken batean, oro har ikusiz, pertsona batek bere bizitzan aurrera edo atzera egin beharreko unek ditu eta aurrera eginez gero zer gertatuko zaion jakin gabe. Arriskatu beharra dago".

Onurei dagokionean, oraingo Eroskik 60 langile ditu eta besteak 100 izango lituzke. Bestalde, ondo ateraz gero, merkataritxiak "ireki egin beharko dira. Dirua jarriko behar dute, egokitze, berritze, azpiegitura berriak, promozioa egin beharko dute... inbertsioak egin beharko lituzte".

Europatik dirulaguntza

Plangintza osoak luze joako du, 10 urtetik gora. Baina lehenengo fasea 3 urtean egingo da. 900 milioiko aurrekontua izango du, pasarelak egiteko, Beasain eta Malkaskoa lotzeko, kaskoaren urbanizazioa, gaztari buruzko museoa egiteko asmoa dugu, Oiangun zenbait hobekuntza egiteko... Europari horren erdia eskatu zaio. Ezezkia emanez gero, hiru urtean egin beharrean plana denbora luzeagoan egin beharko litzateke. Inizitaba pribatuak jarriko duen dirua gehituz gero, ia 12 mila milioiko aurrekontua aurrikusten da.

Oraintxe egin berri dute Rugbyko zelaia. Hortxe egingo da Eroski. "Beste nonbait egin beharko da zelaia. Bila gabiltza, Oiangun inguruan edo". San Bartolome ermita, berriz, erretonda eginez gero, "harritz harri lekuz aldatuko beharko litzateke. Baina erretondaren ordezkio planteamentu berria dago: orain dauden loturak aprobetxatuz, bide paralelo bat egitea, batez ere Donostiako sarrearentzat. Orduan dagoen lekuan geldituko litzateke".

Guardia Zibilaren koartela dagoen lekuan geldituko da, "ez du ikutzen", adierazi digu ordiziarrek.

Pryca Olaberrian

Datorren urriaren bukatetik aurrera Pryca Olaberrian kokatuko omen da. "Urte t' erdi daramagu proiektu honekin lanean. Prycak plana bizkortzea besterik ez du eragin". Hala ere, horrelako bi merkatal gune handi Goierri izatea gehiegi da Alkatearentzat. Goierritarrak 40.000 bat gara. Arrakasta izan eta Gipuzkoara zabaltzea da helburua. Gainera, "Labelaren kalea egingo litzateke. Gipuzkoan leku bakarra izango da labela duten produktu guztiak biltzen direna. Honela, azokarekin lotuko litzateke, hemengo produktuak saltzen segituz", gaineratu du.

Deklaraziorik ez

'Ordizian' merkatarien elkartek, hasiera batean proiektuaren kontrakorik azaldu ez bazuen ere, informazio hau idazterakoan ez du deklaraziorik egin nahi izan, proiektua hobeto aztertu arte gutxienik.

Zurgindegi mekanikoa

JOSE M. YARZABAL

AURREKONTUAK KONPROMEZURIK GABE

Txindoki, 1. - 3-2 Pab. ORDIZIA


Tfona eta Faxe: 88 90 17

**ATEAK
LEIHOAK
ESKAILERAK
OBRAK
ERREFORMAK**

**JAUREGI
TOLDOAK s/l**

Tfonaak: 880243 - 880133
BEASAIN

The Clover School of Languages



**UDAKO IKASTARO INTENTSIBOAK
ESKEINTZEN DITUGU:**
INGELESA eta FRANTSESA
Egunero ordu bat edo bi ordu

Domingo Unanue Pl., 5

16 20 16

ORDIZIA

1. txanda: ekainaren 24tik - uztailaren 19ra
2. txanda: abuztuaren 1etik - abuztuaren 30era
Izen emateko epea ekainaren 19rarte

LEGORRETA ETA ZALDIBIAKO HERRI ESKOLETAKO GURASOAK BORROKAN:

Herri txikiak bizi daitezen, eskola txikiak bizirik

Horixe da Legorreta eta Zaldibiako Herri eskoletako gurasoek aldarrikatzen dutena. Eskola Mapa eta ESO edo DBH (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza) dela eta, 12 urterekin herritik alde egin, Ordiziara kasu honetan, beharko dute ikasleek. Bi herri hauetako haurrak matrikulatu gabe daude oraindik, eta borrokan jarraitzen dute, 14 urte bitartean herrian gera daitezen eskatuz.

Eskari horrekin "ez dugu LOGSEa inondik inora hankaz gora bota nahi. Onartu egiten dugu, baina LOGSE puskatu gabe, lehenengo zikloa herrian egitea eskatzen dugu. Eurak esaten dute 12-16rako ziklo oso bat dela, baina ez da horrela. 12-14rako zikloan ez dago aukerako irakasgairik. OHoko irakasleek eman go diote. Gure herrietan badago hezkuntza hori kalitatez emateko adina azpiegitura. Beraz, 14 urterarte bertan utzi, eskolari eta herriari indarra eman, eta bigarren zikloa egingo duten eskualdeko zentro handiarekin koordinatu egingo gara", adierazi digu Maria Jesus Jauregi Zaldibiko gurasoak.

Badakite eskola txikiek ematen dutena ona dela, eskolaz kanpo sortu duten dinamika ona dela, proiektua baino gehiago, errealtatea dela. LOGSE, berriz, proiektua besterik ez da Lurdes Gaztañaga eta Jose Mari Zugasti guraso legorretarren esanetan.

Horrelako herri txikietan Herri Eskolen indarra oso garrantzitsua da gurasoen esanetan. "3 maila kenduz gero, eskola ahul-



duta geldituko litzateke. Eskola oso indartsuak egitea lortu da. Eskolaz kanpoko ekintza sendoak lortu dira. Ordizian hasiz gero, herriko harremanak eskatu egingo lirateke", gaineratu dute.

Herri Eskolen berezitasuna

"Eskola txikiak eta handiak ezin dira zaku berdinean sartu. Guk ezin ditugu eurak eskatzen dituzten ikasle kopuruak osatu, ez baitago hainbeste haur. Baina kalitatea hor dago. Demostratzeko dago 30 haurretako gela batean 15ekoan baino hobeto daudela. Guk demostratu egin dugu, euren demostratzeko dago", diote.

Gainera, publikotasunaren eta euskalduntzearen aldeko apustua eginda dute eskola txikiek. % 98a eskola publikoan daude matrikulatuta. D eredua bakarrik ematen dute, "herrian ez dago euskaraz ez dakien haurrik". Bestetik, "eskola publikoaren aldeko kanpainan aipatzen zuten dibertsitatea, eskola txikietan dago. Herri guztia matrikulatzen den eskolan adinako dibertsitaterik ez dago inon", dio Jauregik.

12 urterekin herritik alde eginez gero, publikotasuna eta euskalduntzea, ordea, kolokan jar daiteke

gurasoen esanetan. "Ordiziara doazenean B eta D eredua edukiko dute aukerara, batzuk B eredua aukeratzeko arriskua hor egongo da. Bestetik pribatu aukera ere hor dago, herri handietan publikoek ez baitaukate horrelako indarrik. Koordinaketa eginez gero, askoz erraza-

go joango dira 14 urterekin publikora. Askotan esaten diegu eurak ari direla eskola publikoa ahultzen. Gainera, 12 urtekoak badoaz, aukera egongo da familia bereko haur txikiagoak ere herritik joateko. Bi erru ari dira egiten: herria ahultzea eta eskola publikoa ahultzea.", adierazi digute legorretarrek.

Herriaren arazoa

Arazoa ez da eskolarena bakarrik, herri osoarena baizik. Herrian eskolarik egon ezean, jendea nekez etorriko da herrira bizitzera. Eta ahal duenak, herritik alde egingo luke.

Borroka luzea

Herri txikien borroka orain dela 4 urte, LOGSE proiektu bezala atera zenean hasi zen, herri txikiek zein ondorio izan zezaketeen ikusita. Goierriko 9 Udal, guraso eta irakasle biltzen hasi ziren garai hartan. Estudioa egin zen Siadecorekin. 12 urterekin haurrak herritik ateratzeko ekarriko lukeen kaltea aurrikusten zuen.

Elkarrizketan saiatu dira behin baino gehiagotan Zaldibia eta Legorretakoak Hezkuntza Sailburua den Inaxio Oliverirekin. "DBH prozesu oso bat zela erantzun ziguten, ezin dela apurtu... Baina, hala ere, herri bakoitzaren kasua banan-banan aztertuko zutela. Hori azken hauteskundearen aurretik zen". Hauteskundearen ondoren, ezezko erantzuna etorri zitzaion. "Herri Eskola guztiak herri txikietan geldituz gero, ez dute lortzen eurak planteatutako mapa", diote gurasoek.

Politikoei kontraesan ugari dituztela uste dute gurasoek. "Jose Mari Alonso Nekazari sailburuak Sustraiak aldizkarian idatzitako artikulua batean, 1992an, politikoei aho batez herri txikien aldeko erronka egitea onartu zutela zioen. Orain, Gobernu berean dagoen batek, herri txikiak hil nahi ditu eskola txikiak ahulduz. Hain intransigenteak ez daitezela izan eskatzen dugu".

Mobilizazioak

Asteazkenero, eskola ordu erdiz gelditzen dute ikastetxea. Astebukaeretan Udaletxean itxialdiak egitea eta errepedea moztzen hastekoak dira Zaldibian. Bestalde, Gasteizen Eskola Publikoaren festan euren protesta azaldu zuten. Baita UEMAk (Udal Herri Euskaldunen Mankomunitatea) joan zen igandean Aramaion egindako festan ere. "Politikoen atzetik gabilta", esan dute.

BEASAINGO LOINATZ JAIK



Agur Beasaindarrok:

Gure Loinatz Jai herrikoien hasierara iritsita, jailetako batzordearen bitartez beasaindar askoren eginahalez antolatutako jai-egitaraua aurkezten dizuet, eguneroko lan eta kezken ibilbidean geraldibat egin eta guztiok, ume, gazte eta hain gazteak ez garenok era berezian goza ditzagun denon etxe handia baino ez den gure Beasain honetan.

Bete-betea eta ilusioz gainezka gozatzea proposatzen dizuet, muga bakartzat elkarrekiko errespetoa izanez eta bisitatzen gaituztenei geure ezaugarri den alaitasuna azalduz.

Ospakizun-sorta handi honek guztiok beteko gaituen itxaropenarekin eta ospakizunak guztiok beteko ditugun ustearekin, nire eskertza berezia azaldu nahi diet egitaraua prestatzen eskuhartu duten guztiei.

Gozatzera!



**BEASAINGO
UDALA**

Ura

5 litroko ontzia95
Insalus 6x 1,5 l.270

Ardoa

Don Simon (Beltza, Gorri, Txuria)150

Ikatz bejetala (barbakoa, p. rila, e.a.entzat)4K. ...34-



1915etik



resti

HIJOS DE URTEAGA CB

Festa zoriontsuak opa
dizkizuegu denoi!!

Nafarroa Etorbidea, 15 BEASAIN ☎ 88 09 77




Alpe

Sukaldeko haltzari eta elekragailuen erakusketa
Ordenagailuzko diseinua, eskatu aurrekontuak
konpromezurik gabe

Mariaratz, 4

BEASAIN ☎ 88 86 84



Beasaingo festen egitaraua

Maiatzak 17, ostirala:

17:00etan: Aldibereko Xake-txapelketa handia, San Martin plazan.

18:30ean: Eskularen erakusketaren inaugurazioa, erretiratuaren etxean.

19:00etan: Erraldoi eta Kilikien irteera Txistulariekin.

19:30ean: Sardina jana, Zubimuzu plazan.

20:30ean: Loinatz, Loinatz Gaztea eta Loinatz Txiki abesbatzen kontzertua, Andre Mari Zeruratua-ren Parrokian.

22:30ean: Mariren jai-tsiara, pregoiaren irakurketa eta ondorengo danbatakoa, jaiak hasteko, Loinazko San Martin plazan.

23:00etan: Loinatz jaien hasiera bikaina Beasaingo martxarekin.

23:00etan: Eskualdeko Erraldoi eta Kiliki taldearen irteera Koskola txarangarekin. Goloka antzerki taldeak eskainitako kale-susper-

ketako kalejira, bere 'sua-ren garaia' eta 'eskeletoak' ikuskizuna goma-espumaz-ko panpinekin irudikatuz.

23:00etan: 'Ke no falte' reggae musika taldea, Bide-luze plazan.

Maiatzak 18, larunbata:

08:30ean: Txistularien Udal Bandaren goizeresia.

09:00etan: 'Beasain Jaietan' urtekaria salgai ja-riko da.

10:00etan: Meza, Loinazko ermittan.

10:30ean: Saskibaloiko ikastetxe arteko Gipuzkoa-ko Txapelketako final aurrekoa, Antzizar kirolde-gian.

12:00etan: Umeen danborrada, Loinazpetik abia-tuta.

16:00etan: Loinatz Es-kuzko pilota txapelketa ki-mu, ume eta gaztetxo eta amateur mailetan, Antzizar kiroldegian.

17:00etan: Hiri-jokoa



gaztetxoentzako, Joan Itu-rralde plazan.

19:00etan: Kale antzer-kia: Trapu Zaharra taldeak 'Occident Paradise' antzez-lana antzeztuko du.

19:00etan: Tony eta Cristian magoen saioak.

19:00etan: Danborrada-ko konpainien irteera herri-ko kaleetan zehar.

22:30ean: Danborrada-ren ibilaldi handia herriko kaleetan zehar, Indar lante-gitik abiatuta.

00:00etan: Danborrada-ko konpainien bilkura eta azken joaldia Koskola txa-

rangarekin eta Mu-sika Eskolako Musi-ka Bandarekin, Loinazko San Martin plazan.

00:30ean: Dantzal-dia 'Erreka' taldea-rekin, Loinazko San Martin plazan.

01:00ean: 'La Piel' pop musika-taldea-ren kontzertua, Bi-deluze plazan.

Maiatzak 19, igandea:

9:30ean: Kalejira Txistularien Udal-bandare-kin.

10:00etan: XXVI. Loinazko San Martin Nazioar-teko Xake-jokaldiak, Ezkia-ga Auzo Etxean.

11:00etan: 'Barea' ma-rrazki lehiaketa, zangoluzek alaituta, Joan Iturralde plazan.

11:00etan: Landare eta sendabelarren erakusketa, Zubimuzu plazan.

12:00etan: Erakusleihen lehiaketako sari banake-ta, Bareak elkartearen.

12:00etan: 'Beasaingo Hiria' izeneko Argazki

Proba itzazu
"Beasaingo Mar-tintxoak"

Nagusia, 11
88 82 37
BEASAIN

GOZODENDA

J. MUJICA
Harategia

Nafarroa Etorbidea, 31 88 04 88
BEASAIN

Nagusia, 16 88 18 32
Gipuzkoa, z/g 88 08 78
Etxea 16 06 02

ORDIZIA

- Ileapaindegia
- Edergintza
- Solariuma

Itxura aldaketa

Nafarroa Etorbidea, 37 88 02 97
BEASAIN

Inprimategia
EQUZKI

Nafarroa Etorbidea, 9
Tfnoa: 88 94 82
20200 BEASAIN

UNANUE
UME JANTZIAK

Puerikultura

Nafarroa Etorbidea, 4
Tfnoa: 88 71 94
BEASAIN

Lehiaketako erakusketa, sari-ematea eta luncha, Usurbe Antzokiko erakusketa aretoan.

12:30etan: Musika Bandaren kontzertua, Loinazko San Martin plazan.

17:30etan: Goitibeheren jaitsiera, Erauskin auzotik.

19:00etan: Herri-kirolak: Antzizar Herri Kirol taldea - Olaberriko Elkartea, Barrendain plazan.

19:00etan: Goloka antzerki taldearen 'Prakamotzak' goma-espumazko pappinen kalejirarekin.

19:30etan: 'Los pamplo-nicas' taldeak Nafarroako Joten jaialdia eskainiko du, San Martin plazan.

23:00etan: Su artifizialak Caballer enpresak, Igaritzako jauregiaren atzean.

23:30etan: Drindots, Bideluze plazan.

02:00etan: Fab taldea, Bideluze plazan.

Maiatzak 20, astelehena:

9:00etan: Prozesioa Loinazko San Martinen baselizara, txistulari eta dantzariekin. Ondoren Meza Nagusia.

11:30etan: Laguntaldearen arteko futbol-txapelketako azken partidua, La Salle-San Jose ikastetxean.

12:00etan: Umeentzako 'zirko tailerrak' parkea puzgarri eta beste erakargarriekin, Urbialde plazan.

13:00etan: Laguntaldearen irteera Oria eta txalaparta txarangek alaituta.

18:30etan: Laguntalden bilkura eta jaitsiera, Barrendain plazan.

19:30etan: Egan, Bideluze plazan.



Maiatzak 21, asteartea:

10:00etan: Txistularien Udalandaren kalejira.

10:00etan: Azoka berezia, Loinazko San Martin plazan.

11:00etan: Umeen dantzasoka, Loinazko San Martin plazan.

13:00etan: Bertsolarien saioa: S. Lizaso, J. Sarasua, A. Egaña eta I. Eguren. Loinazko San Martin plazan.

nazko San Martin plazan.

17:00etan: Umeentzako euskal jokoak, Joan Iturralde plazan.

19:00etan: Helduen dantzasoka, Loinazko San Martin plazan.

19:30etan: Bertsolarien eta Arantxa eta Koldo Iparagirre trikitilarien saioa, San Martin plazan.

MIRENTXU LIBURUDENDA-k

festa zoriontsuak opa dizkizue

Nagusia, 1

Nafarroa Etorbidea, 7

BEASAIN

☎ 88 14 57

☎ 88 04 55



ELECTRO ORIA

SALMENTA - ZERBITZU TEKNIKOA

Tfnoa. eta Faxa: 16 05 33

Nafarroa Etorb., 7 - BEASAIN



SATELITE BIDEZKO ANTENAK

TELEFONO MUGIKORRAK

AUTO-IRRATIAK

VIDEO-HIFI

TB-ak

EUSKO LABEL

KALITATEKO
**EUSKAL
OKELA**



PELLO HARATEGIA

*Jai egunak ondo igarotzeko
okel ona ezin besteko*

Mariaratz, 2

BEASAIN



*Labores
Otea*

Gurutze-puntua
Puntu erdia
Mertzeria

Andra Mari, 1 BEASAIN

GOIERRI BODEGOLA

Eguneroko bazkari eta afariak

Nagusia, 18

☎ 88 00 00

BEASAIN

Erraldoi eta buruhandi familia handitu da

Erraldidoi eta buruhandi taldea haziz doa piskanaka. Ezkiaga Auzoko Etxeko tailerrean, 2 erraldoi eta 4 buruhandi berri egin dituzte.

Erraldioen familia Mari eta Basajaunarekin batera, trenbideko langileak eta tren geltokiko tabernako andreak osatuko dute. Guztiak ere, Beasaingo herriarekin zer ikusia dutenak dira. Azken bi hauen ezaugarri nagusia, ordea, neurriarena da. Txikiagoak, arinagoak eta eramaten errazagoak dira. Mari eta Basajaun Euskal Herriko handienetakoak badira ere, azken biak txikiagoak dira. Horren arrazoia zera da: buruhandia eraman edo erraldoia eraman, alde handia dago neurrian. Hori dela eta, erdibideko pausoa izango dira erraldoi berriak. Era honetan, erraldoi familia handitzeaz gain, erraldoi era-

maleen taldea ere handitu nahi da.

Haurren artean zozketa

4 buruhandi berriek ere badute berezitasunik. Haurren atzetik ibiliko diren buruhandiak, haurrak eurak izango dira. Buruhandia eramanez parte hartu nahi duten OHoko 8. mailako mutil eta neska guztiek izena, helbidea eta telefonoa ikasgelako irakasleari eman, eta zozketa bidez, korrika piska bat egiteko aukera izango duzu.

Berrikuntzak ikusi nahi izanez gero, ostiralean, Mariren jaitsieraren ondoren ikusteko aukera izango da. Hori bai, Beasaingoe-kin batera, Ordiziako erraldoiak ere bertan izango dira. Azen herriko erraldioen familian 6 kide dira. Beraz, azak eta bareak, guztiak elkartuko dira bareen herrian.



2. igandean zarpantzarrek izango dute beasaindarrek esnatzeko ardura. Goizeko 9etatik aurrera ibiliko dira herriko kaleetan zehar.

Herri kirolak bi igandeetan

Horrelaxe izango da bai, Arrano Beltza Herri Kirol taldearen eskutik. Lehenengo igandean, 19an, arratsaldeko 7etan, Antzizar Herri Kirol taldea Olaberriko elkartearen aurka arituko da. Beti bezala Barrendain plazan.

26an, berriz, profesionalen txanda izango da. Aizkoran Mindegia aita-semeak, Olasagasti - Arria V., eta Arrospide - Iñaki Azurmendi arriarandarra arituko dira. 6na enbor 60 hontzakoak eta 4 kana erdiko ebaki beharko dituzte. Zaharrenak ondoren, Mindegia, Olasagasti eta Arrospide, zutika, 54 hontzako enborra, nork azkarrago ebaki jardun beharko dira.

Harri jasotzen, Joxe Ramon Iruretagoiena 'Izeta II' arituko da. 125 kiloko kubikoa; 150 kiloko errektangularra; 125 kiloko zilindroa eta 100 kiloko bola jaso beharko ditu.

Azkenik, txingan, M.A. Zunzunegi 'Gaintza' k marka jarriko du 100na kiloko txingekin. 25 urte dauzka gaintzarak.

mujika
OINETAKOAK
Nafarroa Etorbidea, 11 - Tef. 88 27 16
BEASAIN

ILAZKI
EDERGINTZA
Festa onak pasa!
Nafarroa Etorb., 47- ☎ 885513
BEASAIN

Yañez
BITXIDENDA
ERLOJUTEGIA

Nagusia, 11 ☎ 88 04 99
BEASAIN

San Martin
AUTOSERBITZUA
Kale Nagusia, 29 Tlf. 880070
BEASAIN

ARTANE
- Liburuak, Aldizkariak...
- Eskulanak
- Eskolarako gaiak
Andra Mari, 1
☎ 16 16 72 **BEASAIN**

JUANITA ARANBURU
OINETAKOAK

Kale Nagusia, 36
☎ 88 01 27
BEASAIN

Erretiratuen jai partikularra

Erretiratuek ere ez dute aspertzeko astirik izango. Haur, gazte eta helduek as-teartetik ostiralera bitartean atsedena izaten badute ere, erretiratuek jo eta su jarraituko dute. Maiatzaren 22an, esaterako, Erretiratuen Gurea abesbatza-ren kontzertua izango da, Usurbe Antzokian, 19:30ean. Ostegunean, Erretiratuen etxean bertan, 'Kiñu' taldearekin dantzaldia izango dute. Horretaz gain, egunero, maiatzaren 17tik 26ra, erretiratuen abileziak ikusteko aukera izango da, Erretiratuen etxean. Ordutegiak: egunero 18:30tik 20:30era, eta jaiegunetan baita 12:00etatik 14:00etara ere.



Sagastigutia parkean erromeria

Maiatzaren 25ean, jaien bigarren larunbatean inauguratuko da Sagastigutia Parke Naturala. Inaugurazio ofizialaz gain, eta formalidadeak amaitutakoan, bazkari eta erromeria egiteko asmoa dago. Txindoki Institutuko ikasleak dira antolaketa lanetan. Mozorrotuen herri-bazkaria izango da. Bertsolariak, txalapartariak, trikitilariak... denetik egongo da.

Hori bai, bazkarian parte hartu nahi izanez gero, txartelak erosi beharko dira. Beraz, begiak erne eta adi!

Panel informatzailea

Jaien egitaraua eta herrian izango diren beste ekintzen berri emateko, panel informatzaile elektronikoa jarriko da, Erzko tabernaren gainean.

12 milioitik gora

Loinatzak antolatzeko 12 milioi pezetatik gora gastatuko dira. Kultura teknikariak adierazi digunez, aurtun, musika taldeen kalitatea azpimarragarria da benetan. Gainera, gusto guztietako taldeak etorriko dira. Era berean, gaztetxoenei begira, egitarau osoagoa osatu dute. Arratsaldeak ekintzez beteta baitituzte.

Mari eta pregoia

Eli Salsamendi izango da aurtengo Mari. Jai hasierako pregoia, berriz, Aitor Sarriegi bertsolariak egin du.

ERROTA
OINETAKOAK - POLTSAK
OSAGARRIAK

Jai zoriontsuak denoi

San Inazio, 2 - ☎ 88 11 75
BEASAIN

BARANDIARAN Taberna

- Eguneroko bazkariak
- Afariak
- Baserriko oilaskoak

Nagusia, 3
BEASAIN

☎ 88 92 10

ARRANO TABERNA

Pintxo eta ogitartekoak

Jaietan ere preso eta
iheslariak gogoan

Nagusia, 12
BEASAIN

GEMA OINETAKOAK

Nafarroa Etorbidea, 7
☎ 88 94 45
BEASAIN



ERRETEGIA

Kale Nagusia, 7
☎ 88 03 19
BEASAIN



ILEAPAINDEGI MISTOA

Festa onak pasa!

Joan Iturralde, 5-7 (solairu-arte)
Tfnoa.: 16 11 05 BEASAIN



ZURE BAKERO DENDA

Levi's
Bonaventure
Replay
Guess
Liberto

Kale nagusia, 42 - ☎ 16 20 56
BEASAIN



Dinex

- Iragazkaiztekoak
- Montairu eta ormigoientzako gehigarriak
- Ormigoiaaren tratamenduak
- Dilatazio juntak
- Erretxinak

Senpere Merkatal Zentrua
1. solairua (3. zkia.) BEASAIN
☎ 889350 Faxes: 880688



LOGOS



TXINDOKI

Sukalde eta bainuko altzariak

J. M. Iturrioz, z/g (Matadero parean)

☎ 88 03 98

BEASAIN



HARRIA GRESAK

BERRIKUNTZA OSOAK

Nafarroa Etorbidea, 45
Tfnoa.: 88 54 66

BEASAIN



Zure bainu berriaren
dekorazio proiektua
egingo dizugu.

Aurrekontuak
konpromezurik gabe

KOIO TE



Giro atsegina musika onenarekin

ORDIZIA

BEASAIN

Jaien egitaraua

Larunbata, maiatzak 11:

16:00etan: XLII. Legorretako txirrindulari proba, jubententzat.

22:30ean: Bertso jaialdia Herri Zinemak: J. Sarasua, Loidisaletxe, X. Euzkitze, X. Zeberio, J. Agirre eta M. Telleria. Gai-jartzaila Txato Agirre.

Asteazkena, maiatzak 15:

20:00etan: jai haserako suziria eta Gizon Pikua Udaletxeko balkoian jartzea.

20:15ean: buruhandiak eta kalejira dultzainariekin.

21:00etan: Lagunarteko afaria Bilkoin K.K.E.n, 15 urtetik gorako edonorentzat. Prezioa 600 pezeta. Afarira joateko sarrerak Udaletxean egongo dira salgai. Ondoren eta goizalderarte, dantza saioa Iraunkorrek txarangarekin.

Osteguna, maiatzak 16: (Azintzio eguna)

10:00etan: Diana dultzainariekin.

11:00etan: Meza.

12:00etan: Erraldoiak eta buruhandiak herriko Eneritz eta Naiara trikitilariekin.

12:30ean: Pote, igel eta toka txapelketa herriko erretiratuen artean.

18:30ean: 'Izkilimili' - 'Jan da lo z' futbol partidua Kirol zonan.

19:00etan: Erromeria Eneritz eta Naiara trikitilarien eskutik. Une berean, sagardo dastaketa eta txorizo jatea Kirol zonan.

23:00etan: Akelarre.

24:00etan: Eskualdeko X. Irrintzi lehiaketa, Udal Pilotalekuan.

Ostirala, maiatzak 17:

10:00etan: Diana dultzainariekin.

9:30tik 12:00etara: Haur jolastokia Kirol zonan.

12:30ean: Herriko soinu-jole eta dantzari gazteen saioa.

14:30ean: Zikiro jatea Bilkoin elkarteak, Iraunkorrek txarangak alaitua.

15:30tik 18:30ra: Haur



jolastokia Kirol zonan.

19:30ean: Haurrentzako Play Back-a.

23:00etan: Helduentzat Play Back-a.

Larunbata, maiatzak 18:

10:00etan: Diana dultzainariekin.

11:00etatik aurrera: Haur jolasak gaztetxoentzat.

12:00etan: Txakolin dastaketa Iraunkorrek txarangak alaituta.

13:00etan: Herriko XIV. Paella txapelketa.

14:30ean: Lagunarteko herri bazkaria plazan. Jakiak norberak jarri beharko ditu.

17:30ean: Helduentzako jokoak plazan.

23:30- 03:30era: Egan.

12:00etatik 01:00era: Mozorro gaua.

Igandea, maiatzak 19:

12:00etan: Meza Nagusia herriko Alkate zenaren Joxe Iturrioren oroimenez.

12:45ean: Erraldoiak eta buruhandiak Eneritz eta Naiara trikitilariekin.

13:00etan: Legorretako haurren arteko pilota partidua.

17:30ean: Bilkoin eta Jota-Kea elkarteak arteko II. Pilota txapelketa.

18:00etan: Iraunkorrek txaranga.

19:00etan: Haur danborrada.

22:30ean: Gizon Pikua-ren ehorzketa.

GUADALUPE JATETXEA

Eguneroko bazkariak

Guadalupe auzoa
☎ 806385

LEGORRETA

LASA EGURRAK, S. L. Zerrategia

☎ 80 60 22 Berostegi auzoa
Faxa: 80 65 56 LEGORRETA



eredu s. Coop.

Ola auzoa, 4

20260 LEGORRETA

☎ 80 61 00 - Faxa: 80 63 74

Festen atarian Play-Backari buruz solasean

Play-Back lehiaketak protagonismo berezia lortu du azken urteetan, herriko festen barnean ekitaldirik arrakastatsuenen bilakatu. Saioa hasi bezain pronto xarma eta luxoz jaxten zaigu herriko pilotalekua, munduko eszenatokiak preziatuena bailitzan. Bertatik pasako direlarik atzoko eta gaurko abeslari eta talde aipagarrienak. Gaur egun inork kasurik egiten ez dion Eurovisionek ere hartuko litzuke bai honelako artistak!

Paki Herrera arima

Play-Backaz gehiago jakitearren ordea, Paki Herrera antolatzailearengana jo dugu. Andre honetxek eman dio azken urteetan Play-Backari falta zuen gatz eta piperra. Algecirasen jaiotako emakume honek gure artera etorri zen lehendabiziko aldian urte t' erdi igaro zuen bertan. Gero bere herrira itzuli zen baina herriminak jo-ta edo laneko oporraldi batzuk aprobetxatuz 15 egun pasatzera etorri eta 12 urte igaro ditu gure artean. Eus-



kal Herria oso gustokoa du eta ez omen litzateke bere herrira itzuliko ezergatik ere. Gure herriarengana maitasunaren beste frogetariko bat da 3 urte daramatzala jada euskaraz ikasten.

Paki semeak Play-Backean parte hartu behar zuela eta berari laguntzen hasi zen. Pixkanaka haur gehiago hurbildu zitzaizkion laguntza bila. Horrela pixkanaka haurren koordinaketa lanak gehitu eta aurtengoan 14 talderekin ari da lanean burubelarri. Berak nahiago omen du haurrekin lan egin, helduekin plazan kontu-kontari jardutea baino. Aitortu digunez txikitatik izan omen du musika eta dantzarako zale-tasun hau. Jantzi zaharrak ere atsegin ditu eta jendeari

esaten dio trapu zaharrak ez botatzeko eta berari emateko egunen batean behar izanda ere.

Udalari dirulaguntzak eskatzerakoan ere ez da atzera botatzen eta eszenatoki eta sariak hobetzearen lan bikaina burutu du. Bere iritzi txikienean behintzat guztiek merezi dute sariren bat, txikia bada ere. Oro har gustora dago Udalaren laguntzaz eta saioa urtetik-urtera hobetzea lortu du.

Gazteak nahiago

Ez omen da ezinbestekoa artistak bezala koreografia eta dantza berdin-berdin egitea. Kanta jakitea, interpretazio on bat, berezko grazia eta jatzera egokia nahiago ditu berak. Aurreko urteetan epaimahaikideekin arazoak izan dira. Hargatik ezinbestekoa iruditzen zaio epaimahaikideek interpretatu beharreko kantu eta artistak eza-gutzea eta gazte jendea nahiago du epaimahaikide lan horretarako.

Ez da gainera partehartzeko garaian atzera botatzen den horietakoa. Horrela, hor azaldu zitzaigun pasa den urtean taulatu gainean bere senar eta lagunekin batera. Espontaneo izan omen zen, zikirotik irten lagunei aipatu eta erraz konbentzitu omen zituen. Aurtan ere ba du partehartzeko asmoa.

Gazteok festetan agertzen dugun partehartze eskasa aipatzen du, taberna zulotan egoten direla salatuz. Gazteen partaidetza funtsezkotzat jotzen du etorkizuneko festak antolatzeko garaian. Pakiri beti gustatu izan zaio antolaketa lanetan aritzea. Bere hoberena eskaintzen die laguntza eske joandakoei eta ematen duenak fruituak ere jasotzen ditu. Aitortu digunez haur guztiek maite omen dute eta horrela den bitartean ziur gaude Pakik aurrea jarraituko duela bere lanarekin. Oraingoz Play-Backa eszenatokiari, partaidetzari eta kalitateari dagokionez hobe-tzea lortu du behintzat. Jarraitu bada Paki lanean urte askoan.

Josune Amondarain

GOIHERRI, S. A.

PAPELAREN MANIPULAKETA

San Migel, 7
Tfnoa.: 80 61 90
LEGORRETA

OLASO Taberna

Giro jatorra

Guadaupe Auzoa
LEGORRETA

☎ 806355

Sagardotegia



aulia

Aulia-enea
Teléfono: 80 60 66 LEGORRETA

BEASAIN

Astebete: azken ikutuak besterik ez dira falta

Loinatz jaiak bertan ditugu dagoenezko. Beasain Jaie-tan urtekaria inprimatzen ari da. 96ko egitaraua prest dago, bere azala Silvia Diez Ibañezek egin du 'Non zaudetu?' lanarekin irabazi baitu kartel lehiaketa. Maiatzaren 17an Mariren jeitsierarekin Loinatzak kaleak metamorfosi batean sartuko dituzte. Aurtzaka dantza taldeak bidali digun oharra dioenez, Mariren jaitziera herrikoiagoa eta jendearen partehartzea zabalagoa izan dadin, 15 urtetik gorako beasaindar guztiei jeitsiera honetan parte hartzeko gonbitea luzatzen zaie. Kiroldegian egingo diren entseiu batera behintzat azaltzea eskatzen da. Entseiu egunak hauek dira: maiatzaren 10, 14 eta 16an, iluntzeko 8etan. Jaitziera baino 5 minutu lehenago azken ordukoentzako entseiu berezia egingo da.

Egun horretantxe hasiko da bestalde, Beasaingo '1996ko Loinatz Jaiak' denetako erakusleihen lehiaketak. Parte hartzeko kome-nigarria da alde aurretik izena ematea eta ondoren



Badira hilabete batzuk Sagastiguti parkearen berri eman genuela. Parke honen eraikuntza obrak orain dela ia 3 urte hasi ziren eta Loinatzetako bigarren astean inauguratuko da. Bide eta bidetxurrez eta zenbait atsedentokiz osatua dago. Nekazal giroa du, horretarako nekazal munduko zenbait tresna kokatu dira parkeko zenbait puntutan. Amaitzeko gauzatxo batzuk besterik falta ez zitzaizkon unean, ordea, zenbait txikizio izan dira. Erretegi bat puskatu egin dute, txondorra behera bota dute, gurdia ere tokiz kanpo utzia izan da eta ur depositua eta bere inguruan dauden mahaiak pintadaz bete dituzte.

erakusleihoa ohiz saltzen diren artikuluak osatu beharko dute.

Bestalde, kuadriletako futbolak aurrera jarraitzen du. Finalaurrekoetan Potrozorri, Altzaporr, Zumazuritze eta pasa den urtean irabazle izandako Auskalo kuadrilak daude.

Beraz, herriko jaiak ahalik eta ondoen pasatzea opa dizuegu txoko honetatik.

Munduko amuarrain txapelketara

Aitzo-Zorrotz elkarteko ki-dea den Juan Jose Sanz Txekian ospatuko diren amuarrain arrantzaren txapelketara joango da. 24 amuarrain arrantzatu zituen apirilaren 25 eta 27 bitartean Cangas de Onisen ospatutako kanporaketan. 25 arrantzaiek parte hartu zuten eta 5 sail-

katu ziren mundialetarako. Orain dela 3 urte Kanadan ospatutako mundialetan 52. postua lortu zuen, 100 partehartzaile baino gehiagoko lehiaketa izan zen hura. Baina Txekia joan aurretik maiatzaren 19an Euskadiko Txapelketara aurkeztuko da, Leitxaran errekan izango da berau. Hemendik zorte handia opa diogu.

Javier Palacin

Txirrindulari beasaindarak txirrindua uztea erabaki du 3. denboraldian. Euskadi taldearekin debutatu zuen profesionalean. Orain motibazioarik ez izateak bizikleta baztertzeraz bultzatu du Palacin txirrindulari gaztea.

Extremenoen eguna

Extremadurako Lehen Kultur ihardunaldia antolatu zuen Beasainen Tolosako 'La Jara' Extremadurako Kultur zentruak. Beraien, gastronomia, folklore eta abarren erakusketa izan zen, Extremadurako dantzak izan ziren ikusgai eta bertako jaiak dastagai.

Izaskun Salazar

GRUPO VITALICIO

SEGUROS BANCO VITALICIO NACIONAL HISPANICA
VITALICIO PENSIONES

ASEGURUAK

Esteban Lasa, 3 ☎ 160486 BEASAIN

EDARITEGIA

Jara


Festa onak pasa!

KAFETEGIA

Nafarroa Etorbidea, 27

☎ 88 86 81

BEASAIN



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxegintzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, iturri eta gehigarriak
- Hidromasaia bainerak eta saunak
- Subaju eta ikatz eta egurrezko sukaldeak

B.L.

**Barandiaran
ZERAMIKAK**

Senpere, 7

☎ 88 79 72

BEASAIN

ORMAIZTEGI

Berziklaketari buruzko inkesta zabalduko dute Herri Eskolako ikasleek herrian

Inkesta hauek Herri Eskolako 7. eta 8. mailako ikasleek etxez-etxe banatuko dituzte, herritarrok inkesta horiek irakurri eta bete ondoren ikasleak etorriko dira biltzera. Erantzun beharrekoak berziklaketa eta berrabilpenari buruzko galderak izango dira. Bertan bilduriko datuen bitartez, ikasleek herritarren gai hauei buruzko ezagutza zein nolako mailan dagoen ikertu ahal izango dute. Ingurugiro heziketaren barnean aurrera eramango duten ekin-tzetako bat izango da hau.

Buruturiko kanpaina

95-96 ikasturtean Ingurugiro Heziketa lantzeko kanpainez baliatzen ari dira Herri Eskolako ikasle guztiak. Bata 'Zain dezagun natura' lemapean eta bestea 'Maite dezagun natura hobeto eza-gutuz' lemapean.

'Zain dezagun natura' kanpaina, berziklaketa eta berrabilpenaren inguruan burutzen ari da, beronen barnean ikasturte osoan zehar hainbat ekintza burutu izan dira jarraian adierazten den bezala:

Lehenengo ikasle eta irakasleen artean, gaiaren inguruko kontzientzia sortzen saiatu zen. Ondoren eta Sasietako teknikarien laguntzaz diapositiba emanaldiak eta berziklaketa tailerrak burutu zituzten 5. maila ar-

teko ikasleek. 6. mailakoek, berriz, 'Egizu keinu naturala' izenpean hainbat ekin-tzetan partaide izan ziren: autobus urdina, ipuin kontaketa, txotxongiloak... Ikaslerik handienek Sasietako zabortege kontrolatura bisi-taldia egiteko aukera ere izan zuten, sortzen ditugun zaborren bidea eta jarraitzen duten tratamendua eza-gutuz.

SOS Afrika ere gaitzat hartu eta hainbat pertsonen gabeziak ohartu ziren, ber-



tan ikasle guzkiek parte hartu zuten eta erabilitako arropak jasotzen ahalegindu ziren. Mendiak eta inguruak

garbi mantentzea zein garrantzitsua den konturatzen lagunduko dien diapositiba emanaldia ere izan zuten.

Biztanleen Udal Errolda berritu

Maiatzan zehar Biztanleen Udal Errolda eta Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika egiteari ekingo diote. Lan hau udaletxean burutuko da eta bakoitzari etxera bidaliko zaizue zein egun eta orduetan hurbildu behar duzuen bertara. Egun horretan etxean bizi zireten kide guztien NAN-k eraman behar dituzue Udaletxera.

Bertan, errolda inskripzio-orri eta biztanleriaren eta etxebizitzaren estatistikaren galdesortak bete beharko dira, horretarako udal langileen laguntza izango duzue. Nahi izanez gero, Udaletxean jaso daiteke aipatu inskripzio-orria eta galdesorta eta etxean bete ondoren berriro Udaletxera itzuli.

Jaso behar den informazioari ahalik eta era zehatzenean erantzun ahal izateko, etxe bakoitzera inskripzio-orri eta galdesortaren kopia bidaliko zaizue, aldezturik eza-tutu ditzazuen berauen edukinak. Galdesorta horretan ikas-keta, lanbide, etxebizitza, etab. buruz galdetzen zaizunaz ongi jabetzea guztiz garrantzitsua gertatuko zaizu, Udaletxera informazio ahalik eta argienarekin hurbil zaitezten. Gogoratu datuak zure etxeko kide guztienak izan behar du-tela.

Dena den edozein zalantza izanez gero Udaletxeko bu-legoetara hurbildu edo 88 26 60 telefonora deitzea nahikoa izango duzue.

Inkestaren banaketa

Orain arte burutu izan dituzten ekintzak asko eta aberasgarriak izan badira ere, kanpaina amaitzeko herritarren iritzia jasotzea guztiz garrantzitsua eta beharrezkoa dela uste dute-nez, etxez-etxe inkestak banatu eta biltzeari ekingo diote. Inkesta hau 3 atal nagusietan banatzen da: lehenengoan gaur egungo zabor bilketari buruzko iritzia jaso nahi da; bigarrean bilketa bereiztuaren egoera; eta azken atalean zein den erantzulearen gaiari buruzko maila. Galderak erantzuteko orduan inolako zailtasunik ez badute ere, datuak jaso nahi dituzten ikasleentzako erabat garrantzitsuak izan daitezke, beraz, guztioi jarrera baikorra izan deza-gun eskatzen digute.

Aitziber Murua



-Agroturismo etxea: bi logela bikoitz bainuarekin.
-Etxeko sukaldaritza: babarrunak, baserriko oilaskoa, arkumea...
-Eguneroko menua 800 ppta. Karta 2.000 ppta bataz beste.

MANDUBIKO BENTA

Jatetxea

Mandubiko gainean, Urolatik Goierriko bidean
Tfona: 88 26 73

ORDIZIA

Majori Kiroldegia etekinak iazko denboraldian



Eta ez diru aldetik bakarrik, izan ere abonatu kopurua ere nabarmenki igo da. 1994ko denboraldiari begirada bat emanez gero 830.000 pezeta pasatzoko irabaziaz nabari daitezke eta honen arrazoiak hauek lirateke batez ere: Kiroldegiaren gestio ona, gastuen murriztea eta Udalaren laguntzen igoera (2 milioi pezeta gehiago).

Honez gain Kiroldegia eskaintzen dituen aukerak aprobetxatzen dituztenak ere geroz eta gehiago dira. 94-95 denboraldian 4.000 abonatu kopurua pasatzea lortu da, hain zuzen ere 4.190eko kopurura iritsi baitzen. Dударik gabe ordiziarrek gara bezorik finenak, %68a guztira. Uda gerturatzeko ari zaigula eta las-ter hasiko da abonuen berrikuntza egitea. Beraz, adi! Ea aurten marka hori haustea lortzen den.

Udal errolda

5 urtez behin egin behar-koa dela eta, maiatza eta ekaina bitartean arituko dira udaletxeak ipinitako zenbait agente etxez-etxe. Oraingoan, biztanleen udal-errolda berritzeaz gain, etxebizitzaren estatistika ere burutu behar-ko da. Beraz saia zaitez agenteek iragarritako egun eta orduetan etxean egoten errolda edo padroia oso gar-rrantzitsua baita etorkizunean zenbait laguntza lortze-ko. Zentsurako ere balio du.

Lehiaketa baten ondoren udaletxeak aukeratu dituen ordezkari eta agenteak hauetxe izan dira: ordezkaria Elena Oiarbide eta honekin batera 7 agente, Aitor Calvillo, Mikel Leunda, Larrantz Zubeldia, Lourdes Aizpurua, Imanol Lizaso, Itziar Goitia eta Maitane Otegi. Bakoitza identifikazio txartelarekin joango da eta udalak benetan eskertu-

ko luke zuen, ordiziarren laguntza.

Errolda eta estatistikaz gain, agenteak inprimaki bat emango dizu aurrerantzean udalarekin izan nahi dituzun harremanak euskera hutsean izan nahiez gero. Orria bete eta agenteari ematea besterik ez duzu.

Sukaldaritza ikastaroa

Hitzaro Euskara Elkartek sukaldaritza ikastaroa antolatu du oraingoan. Espero zitekeen bezala jende de-xente apuntatu da Pablo Markiegi sukaldariak Larrun-Arri elkartearen irakatsi-ko dituen platerak ikusi eta ikasteko asmoz. Makailu-kokotxak almejen saltsare-kin, makailua pil-pilean, udaberriko entsalada, arrain-pastela, porru-hojal-drea eta honelako hainbat prestatzen ikasteko aukera izango dute ikastarorako izena eman dutenek. Maia-tzaren 11n hasita ekainaren 1ean izango da azken saioa, esan bezala Larrun-Arri 9:30etatik 11:30ak bitartean (larunbatero).

Askapenaren brigadak

Aurten ere Askapenak ireki du udan brigadetara joan ahal izateko izena emateko epea. Iralanda, Palestina, Cuba, Chiapas, Ipar-Mexi-ko, Guatemala, El Salvador, Ecuador edo Andaluziara brigadista joan nahiko baze-

nu azaldu zaitez maiatzaren 17a baino lehen Herrikoaren gainean dagoen lokale-ra. Asteazken eta ostiraletan 6etatik 8etara izango da horretarako aukera.

Poltsikoko ikuskizunak

Udalak antolatuta poltsiko-ko ikuskizunak ikusteko au-kerak aparta izango dugu aurtengoan ere. Guztira 5 kafe-antzerki ikusteko au-kerak izango dugu eta denak Barrenan izango dira. Lehen saioa "Teatro Maleta" k eskainiko du, "Que puñeta de maleta" obra hain zuzen. Berau larunbatak 11n izan-go da gaueko 10etan. Bigar-ren saioa ostiralean, hilak 17an izango da. Oraingo honetan "Sacraff" jazz-tal-dearen kafe-antzerkia izan-go da. Bigarren honetan antzerkia eta musika ekar-rekin nahasten dira. Merezi du ikusteak eta beraz, ira-kurle, ea animatzen zaren. Hurrengo 3 saioen berri da-torren alean izango duzue.

Zoru berria

Udaletxean jasotako kexa ugari medio, Barrena parke-ko jolaslekuan ageri zen hondarra kentzea erabaki dute. Higiene kontrakoa izaki, orain baldosa eta ma-teriale sintetikoengatik or-dezkatzea erabaki dute hon-darra. Umeen mesederako izango al da!

Aitor Calvillo

Pisua salgai Ordizian

Kasko historikoan: Kale Nagusira eta Goen Kalera ematen du.

Erreformatuta

88 06 34



pintura eta gaineztadurak

Aita Urdaneta, 6

88 59 28 - 16 17 44 ORDIZIA

LELAR
KRISTALDEGIA



ERAKUSKETA: Ezkiaga Pasealekua z/g 888824
BILTEGIA: Salbatore Industrialdea. 886070
BEASAIN

SEGURA



Orain 50en bat urteko San Ixidro eguneko herri afaria erreboten.

Ardo partiketa eta herri afaria

Maiatzaren 15ean, urteroko lege, San Ixidro eguna ospatuko dute baserriarrek, eta hauen aitzakian kalekumeek. Iluntzean ardo partiketa izango da, eta ondoren herri afaria plazan. Afalondorena betsolariek eta trikitilariek alaituko dute.

40. hamarkadako argazkian ikus daitekeen bezala, garai batean, San Ixidro eguneko herri afaria errebotean egiten zen. Herriko zaharrenek diotenez gainera, ardo partiketa eta herri afariaren ohitura, San Juan bigarrenetik San Ixidro egunera pasa zen 40. hamarkada horretan. Aldaketarik izan ez duena Korpus egunekoa da.

Santa Barbarako eguna

Asentzio eguna maiatzaren 16an bada ere, 19an ospatuko da Santa Barbarako eguna. Orain 20ren bat urte Kortaberri auzokoek egun honen prestaketa bere gain hartu zutenetik, beraiek arduratzen dira ermita zaindu, txukundu eta meza egunerako, traktorez, kafea, anixa, gailetak, salda, txistorra, ogia, ardoa eta freskagarriak eramateaz. Garai batean,

egun guztiko festa izaten zen, erromeri eta guzti. Orduan, herriko zenbait tabernarik igotzen zuten jan-edana. Joxe Mari Luzuriaga "Arroio" ondo akordatzeko da: *"Beñ, earik bukauta, bi bueltare eñ nittuan Santarbatik, Xamixenteko aston astasaskik ondo kargauta Markitgegi aldetik igo genduan. Astoa txikie zian, baño erabateko goorra"*.

Goizeko 9etan izango da auzoan hildakoen aldeko meza, aurrez, berriz, bertako 31 pagoetako adar bat ixipu modura erabiliz, lau haizetara, lurak, abereak eta etxeak bedeinkatuko dira.

Atsedeneko batzordea

"Atsedene" jubilatuen elkarreko batzordean, 2 urtez behin, 3 lagun irten eta beste 3 sartzen dira. Oraingoan, Arturo Gonzalez, Antonio Garaialde eta Anttoni Igeltz irten, eta Anttoni Aldanondo, Xabin Aldanondo eta Joakin Izagirre sartu dira. Lehendakari Patxi Garaialdek jarraituko du, idazkari Manuel Huertak eta diruzain Joxe Mari Auzmendik. Gainerako batzordekideak Tere

Andueza eta Inazio Lezeta dira.

Zoritxarra arranderentzat

"Artoa ereittekoko garaie allau da", esan ohi dute baserriarrek lehenengo arranderak ikustean. Aurtengo ere, urteroko puntualitatez, maiatzaren 2 edo 3 aldera azaldu dira, uda partea hemen pasata, abuztuaren erdi aldera alde egiteko. Hegal handiko hegaztiak izanik, lurreratu ezker ezin izaten dira aireratu; honen ondorioz, beren ahapiak leku altuetan egin izan dituzte, batipat elizetako teila zuloetan, ahapitik bertatik hegaka iritetzeko. Aurtengoan, ordea, ezusteko handia izan dute, elizako teilatuaren konponketagatik. Behin eta berriro saiatzeko diren arren, ez dute ia zokian teila zulorik aurkitzen.

Jaunartzeak

Maiatzaren 12an, eguerdiko 12:00etan, Segurako eliza nagusian, Jon Agirrek, Iker Azurmendik, Amaia Ferreirak, Mikel Garziandiak, Gorka Gerrikok, Asier Izetak, Alaitz Imazek, Aintzane

Intxaustik, Aiora Juanak, Eider Lardizabalak, Mikel Lizarazuk, Nerea Oiharbidek, Joseba Oteiza, Tamara Nicol Sanchez, Iñaki Setienek eta Esteban Telleriak, lehenengo arrantzaria egingo dute.

Herri Urrats

Elorri Kultur Elkarteak antolatutako herri urratsen 12an, Senperen izenaren Herri Urratsarako, larunbat, goizeko 8:30ean plazan, ikasle eta langabetuek parte hartuko dute. Izenak Elorripe tabernariaren bait lehen.

Aratzera irteera

Eskolaz kanpoko ekitaldiak, maiatzaren 19an, goizeko 9:00etan plazan egingo da. Aratzera irteera Laiotz Herri Eskolakoek. Irteera hau, azarotik 26rako zegoen antolatutako baina eguraldi txarra dela eta, bertan behera geratu zen. Ikasturteko azken irteera izango da.

Rejionalak mailoz igo

Liga amaitzeko 4 partidak falta direla, Segurako 2. Rejionalako futbol taldea 1. Rejionalera igo da. Infanteria eta jubenilek ere, beren errelebo maila igozko mailara igotzeko aukera dute.

Asteburuko emaitzak

Infantilak: Aizkorri 4-0 Dunboa

Kadeteak: Aizkorri 0-0 Beraun

Jubenilak: Orioko 2-1 Segura


Rejionalak: Beti Sutan 1-1 Segura

Asteburuan etxean

Infantilak: Aizkorri-Urdul 2-0 Zapatuan, 16:00etan.

Kadeteak: Aizkorri-Dunboa. Zapatuan, 11:00etan.

Joseba Telleria



Serora etxea

Santa Barbarak, bere garaian zaintzailea ere izan zuen. Joxe Auketak, 1867an jaiotako Jose Ignacio Insausti, bere aitona entzun zion, ermittak serora izan zuela, eta gainera, Santa Barbara baino beheraxeagoko markes basoan dagoen txabolan bizi izaten zela uda partean, eta herriko ospitalean neguan. Familian, bakarra gelditu, eta azken urteetan, limosnari esker bizitakoa izan omen zen emakume hau. Argazkian, Serora bizi zeneko txabola eta barruko beheko sua teilaz egindako tximiniarekin.

IDIAZABAL

Nesken futbol taldea indarrean

Asteo futboleko nesken taldea indarrean dabil denboraldi honetan. Jubenilen mailan aritzen den taldeak emaitza onak lortu ditu txapelketako lehenengo jardunaldian. 14 partidurikatu dituzte guztira, eta horietatik hamabitan irabazleak.

Emaitza horiek direla medio Gipuzkoako kopa lortzeko lehiaketa ari dira jokatzeko orain. Gipuzkoako kopa lehen partidua Donostian jokatu dute Larremendi taldearen aurka, emaitza herriarren aldekoa izan da: 0-6.

Aurten lortzen ari diren emaitza onak kontutan hartuta, hurrengo denboraldirako federatu nahian dabil talde hau. Horretara-

ko ordea, jende gehiago behar dute. Hori dela eta, Kiroldegitik deialdia egin dute, neskak futboleko aritzeko anima daitezela. Interesa dutenak, hilaren 24a baino lehen eman behar dute izena Kiroldegian.

Kultur astearen bukaera

Maiatzeko bigarren aste-buru honekin batera bukatuko da aurtengo Kultur astea. Astebururako ekitaldi hauek daude antolatuta besteak beste: larunbatean, Albitsuko igoera, txotxongilo emanaldia, herri afaria eta Donostiako Trebeska dantza taldearen saioa izango dira. Igandean, azken urtetako ohitura-ri eutsiz, artisau erakuske-

ta izango da plazan. Arratsalde partean talogileak ere arituko dira.

Asteburuan emango da jakitera baita ere zein logotipo aukeratu diren Kiroldegirako eta Herri Eskolarako. Aukeraketa herriarren iritzia kontutan hartuta egingo da.

Ikurriña kendu dute

Aberri Egunaren inguruan Idiazabalgo HBk eginiko ikurriñaren aldeko ekimenen artean, 7x6 neurriko ikurriña jarri zuten saihesbideko pareta batean. Maia-tzaren 6ko arratsaldean, apurtu eta kendu egin zuten.

Idiazabalgo HBk salatu duenez, "badaude Euskal Herria nazio bezala ez de-

la esistitzen esaten dutenak!... eta hauek, beraien buruari demokrata izena emanaz, Euskal Herriaren batasuna eta askatasuna gorrotu dute, euskara gorrotu dute, eta noski... ikurriña gorrotu dute". Ikurriña bat kenduagatik, beste bat jarriko dutela iragarri dute.

Gazte Asanblada

San Juanetarako hilabete pasatxo falta bada ere, Gazte Asanblada San Juan gauetarako ekitaldiak prestatzen ari da dagoeneko. Gau horretarako ekitaldiak antolatzeke lehen biler hilaren 10ean egingo da, arratsaldeko 8etan Kultur Etxean.

Xabier Urteaga

ZUHAIZKI

Zurgindegi Mekanikoa



-LEIHOAK, ATEAK
ETA ABAR

-ESKAILERAK
NEURRITARA



Beko kale, z/g.
Tel. 88 71 26
Faxa: 16 10 77
ITSASONDO
(Gipuzkoa)

ALUMINIOS



EUSKADI, S. A.

Biltegia: ☎ 16 11 66
Bulegoak: ☎ 88 93 50
Faxa: 16 02 91

Zubi termikoaren haustura
Aroztegiatarako profilak
Bainu manparak
Aluminiozko xafla normalizatuak
Makinaria

10 Poligonoa
34-36 Pab.
BEASAIN



RENAULT

AGENTZIA

LAZKAO GARAJEA

Senpere Industrialdea
☎ 882442-888901
Faxa: 888901
LAZKAO

SALMENTA PUNTUAK:

Beasainen: Osaki belardendan, Igartza Oletako kioskoan, Begue janaridendan, Montoia harategian, Eroslen.

Ordizian: Altamiran, Martina Bustuntzan, Osasun belardendan, Muño denda Urdanetan.

Zegaman: Kooperatiban, Maria Jesusen denda, Arrondon.

Segurako Erosle eta Idiazabalgo Alda-nondon.



ZEGAMA OKINDEGIA

Eskuz egindako
ogi naturala

☎ 80 10 66
☎ 80 10 70 (Etxea)

Olaberria Kalea, 6
ZEGAMA



- Iturgintza
- Berogintza

Mendi-Ondo etxea
Tfona: 88 40 57
ZALDIBIA


Esteban Lasa, 7
Tfona: 88 80 29
BEASAIN

BEASAINGO
UDALA




AYUNTAMIENTO DE
BEASAIN

KIROLAREN UDAL ERAKUNDEA
INSTITUTO MUNICIPAL DEL DEPORTE
ANTZIZAR UDAL-KIROLDEGIA



KIROLA BAI, ESKERRIK ASKO



BEASAINGO UDALA (GIPUZKOA)
AYUNTAMIENTO DE BEASAIN

IMD-KUE

